

Marcos Melo-nik bi-zi-bizi oroi-tzen du abuztu amaierako egun hura: sugarrei aurre egiten saiatu zen, azukre-kanaberen bere uzta hondatu ez zezaten, Brasilgo hego-ekialdean.

«Sutearen aurka borroka-tzen ari ginenean, zisterna-kamioiaren atzerako ispiluaren plastikoa zimurtu egin zen be-ro ikaragarriaren ondorioz», azaldu dio Barrinhako nekaza-ri honek AFP agentziari. São Paulotik 340 kilometrotara bi-zi da eta lan egiten du, nekaza-ritza eremu garrantzitsu baten erdi-erdian.

«Pentsatu nuen ez nintzela bizirik aterako kontatzeko», aitortu du.

Amazoniatik, herrialdearen iparraldetik, hegoaldera kiska-li dituzte suteek azken astee-tan Brasilgo eremu zabalak. Agintariek diotenez, nahita eragindako suteak izan dira. Adituek klima aldaketari egoz-ten dioten; idorte historiko bat jasaten ari da herrialde handia, eta horrek sugarrak indartu ditu.

Ondorioz, azukre-kanabera, kafe, laranja eta sojaren mun-duko lehen ekoizle eta espor-tatzaileak kaltetzeko arriskuan ditu uzta horiek. Urrian euria egitea komeni da, gainerakoan okerrago izanen da.

AZUKRE-KANABERA

São Pauloko estatu osoan, gu-txienez azukre-kanaberen 231.830 hektarea hartu zituen suak, gehiago edo gutxiago, Unica azukre-kanaberaren ba-tasun industrialaren arabera. Brasilen azukre gehien ekoiz-ten den eskualde honetan lau milioi hektarea erabiltzen di-



BRASIL, IDOR ETA ERREA

Amazoniatik hegoaldera hedatutako suteak larriagotu ditu ezohiko lehortek

INGURUMENA / GAUR8

Brasilgo nekazariak hagitz kezkatuta daude herrialdean goitik behera zabaldu diren suteengatik eta klima larrial-diaren eraginez jasaten ari diren idorte historikoagatik. Azukre-kanabera, kafe, laranja eta soja ekoizten eta es-portatzen lehena da munduan Ameriketako herrialde handi hau, baina kalteak jasan ditzakete uzta horiek.

ra horretarako. Suak hartuta-ko hektareen erdietan dato-rrren hilabeteetan jaso behar dute uzta.

«Azukre-kanabera zutik gel-ditu zen lekuetan, ekoizpena erdira jaitsiko dela aurreikus-ten dugu», erran du Jose Guil-herme Nogueirak, Orplana ka-nabera ekoizleen elkartearen antolakundeko zuzendariak.

Melonik bere uzta bildua zuen, baina kalte handiak izan zituen. «Ernamuinak zeuden lekuak erre ziren, ez ziren ate-ratzen ari ur eskasiagatik. Orain zain gaude berriro non erein dezakegun ikusteko».

ARABIKA KAFEA

Hego ekialdean, Minas Gerais-en, Brasilgo arabika kafearen

%70 ekoizten den estatuan, kafe ekoizleak euriaren espe-roan daude, beharrezkoa baita zuhaixkak loratzeko eta heldu den urteko uztan jasoko diren kafe-bihiak sortzeko.

«Ura falta da lurzoruetan; 40 urtean ezagutu dugun ur gabeziarik larriena da», adie-razi du Jose Marcos Magalhae-sek. Herrialdeko bigarren koo-peratibarik handiena den Minasul-eko presidentea da. «Iraila bukatu aitzinetik euri dezente egin behar du 2025eko uzta normal samarra izateko esperantza izan deza-gun», agertu du.

2023-2024ko uzta, bukatze-ar dagoena, berriki izan diren kli-ma-baldintzek kaltetu zuten. Arabika kafearen produkzioa %8,2 handituko zela iragarri zuen maiatzean Conab estatu-ko hornitze konpainia publi-koak, baina seguruenik baxua-go izanen da, Renato Ribeiro São Pauloko Unibertsitateko ekonomia aplikatuko ikasketa aurreratuen zentroko (Cepea) kidearen arabera.

LARANJAK

São Paulo eta Minas Ferais es-tatuetan ekoizten dira laran-jak, neurri handi batean zu-kuen industria hornitzeko. Horiek ere jasan ditzakete idortearen ondorioak.

Maiatzean azaldu zutenez, 2024-2025 urteetako uzta az-ken hiru hamarkadatako ba-xuena izatea espero zuten. Baina Fundecitrus Brasilgo zi-trikoen ekoizleen elkarteak are gehiago jaitsi zituen au-rreikuspenak: iaz baino %29,8 gutxiago ekoiztea espero dute, bakterioek eragindako gaixo-tasun bat tarteko.

SOJA

Soja, Brasilgo indar politikoa-ren eta nekazaritzaren nego-

Suhiltzaileak, Brasilgo Corumba hiriko sutea itzaltzeko lanean. Marcelo CAMARGO | DPA EUROPA PRESS

zioan nazioartean duen lekua-
ren zutabea izanik ere, ez zen
salbatu. Bere ekoizpena %4,7
jaitsiko dela espero du Conab-
ek, bai lehorteagatik bai apiri-
laren eta maiatzaren artean
Rio Grande do Sul estatuan,
hegoaldean, izan ziren euri-
teengatik. Orain, idortea ereite
berriak gibeleratzen ari da.

«Klima hobetzen bada, soja
ekoizleek galdutako denbora
berreskuratzen ahalko dute»,
dio, itxaropenari eutsi nahian,
Luiz Fernando Gutierrez Sa-
fras e Mercado sinadurako
analistak. «Baina urrian ur fal-
tan segitzen badugu, 2025eko
uztan arazoak izan daitezke».

«Agroindustriak bere zori-
txarraren ardura handia dau-
ka», nabarmendu du Carlos
Nobre klimatologoak. Izan ere,
«berotegi efektuko gas gehien
isurtzen dituen sektorea da
Brasilen. Beharrezkoa du gu-
txitzea eta baso-soiltzea ama-
itzea. Begiak ireki behar ditu».

LULAREN DEIA

Sute olatu hauen erdian, Bra-
silgo presidente Luiz Inacio
Lula da Silvak Amazonia behin
betiko diruz babesteko eskatu
zien herrialde aberatsei.

«Egoera hagitz larria da»,
ohartarazi zuen Radio Norte
FMko elkarrizketa batean,
Amazoniako bidaiatik buel-
tan, planetako baso tropikalik
handiena erasan duen mutu-
rreko idortearen eraginak ber-
tatik bertara ikusi ondotik.

2023an jada lehorte gogorra
pairatu zuten, eta orain, Ama-
zoniako ibai batzuk inoizko
baxuen daude. Botika eta eli-
kagaien garraioa oztopatu du
horrek, eta dozenaka landa ko-
munitate isolatu, sugarrak he-
datzeko gasolina izateaz gain.

Testuinguru horretan, esta-
tuburuak «unea baliatzera»
deitu ditu «europarrak eta ga-

ratutako mundua», Brasilek
eta gainerako Amazoniako he-
rrialdeek «dirua jaso behar du-
tela ohar daitezen, bertan bizi
diren pertsonak zaintzeko.
Zuhaitz adaburu bakoitzaren
azpian lagun bat bizi da, eta
oihana babestea bizimodu gi-
sa ulertu behar da», defendatu
zuen. «Arduraz jokatzeko» es-
katu zuen, «bizi garen mun-
dua suntsitzen ari garelako».

«KLIMA AGINTARITZA» BAT

Lulak oroitu zuenez, ekimen
bat bidaliko du laster Kongre-
sura Klima Larrialdien Estatu-
tu Juridikoa ezartzeko, mutu-
rreko gertakariei aurre egiteko
politika publikoak «sortu eta
azkartzeko» asmoarekin.

Plan horrek «klima agintari-
tza» bat eratzea ere barne har-
tzen du, batzorde zientifiko
batekin. Lider progresistak,
gainera, armadan sartzen di-
ren gazteak klima hondamen-

**«Agroindustria berotegi efektuko gas gehien
isurtzen dituen sektorea da Brasilen.
Beharrezkoa du gutxitzea eta baso-soiltzea
amaitzea. Begiak ireki behar ditu»**

**São Paulo, Latinoamerikako hiririk handiena,
munduko metropoli handi kutsatuenen
lehenengo postuan jarri du IQAir airearen
kalitatea zaintzen duen enpresa suitzarrak**

Brasilgo Ingurumen
ministroa, Marina Silva
(irudiaren eskuinaldean),
Senatuaren komitearen
kideak aitzinean dituela,
herrialdearen parte handiak
kaltetu dituen suteez
solasean.
Lula MARQUES | DPA EUROPA
PRESS

dietarako prestatzea proposa-
tu zuen. «Gure fokuak egoki-
tzea izan behar du», adierazi
zuen Manaus estatuko hiribu-
ruan. Egitura hori Lularen hi-
rugarren gobernurako (2023
eta 2026 urteen artean) hau-
teskunde kanpainako prome-
sa bat zen, Marina Silva Ingu-
rumen sailburuak egina.

«Klima aldagetarekin lotuta-
ko muturreko gertaera horiek
gero eta maizago izanen dira,
eta gero eta intentsoago»,

erran zuen Brasilgo presiden-
teak ekitaldian.

Gobernuak Amazonia ibaia
eta bertze ibai batzuk draga-
tzeko obrak hasiko dituztela
iragarri zuen. Ur garbigailuak
ere banatuko ditu.

BIOMASAREN %1,6 ERRE DA

Suteek Brasilgo Amazoniako
6.718.025 hektarea kiskali di-
tuzte 2024. urte hasieratik ho-
na; biomasaren %1,6 suposa-
tzen du horrek, datu ofizialen
arabera. Guztira, 63.189 sute
foku zenbatu zituzten urtarri-
letik abuztura bitartean Ama-
zonia brasildarrean, joan den
urteko sasoi berean baino bi
aldiz gehiago. Gehienak giza-
kiek eragindakoak izan direla
susmatzen du Gobernuak.

Klima larrialdiarekin lotuta-
ko idortearen ondorioz, su-
teak errazago zabaldu dira eta
ke hodeiak Uruguai eta Argen-
tinaraino iritsi dira.

